

ERABAKIA, 2022ko APIRILAREN 6koa, "SGIKEReko GOI MAILAKO TEKNIKARIA (MAKROPORTAERA - MESOEGITURA - NANOTEKNOLOGIA)" LAN POLTSA ZABALTZEKO PROBAK EPAITU BEHAR DITUEN EPAIMAHAIARENA, HAUTESPEN PROZESUAREN HURRENKERA PROPOSAMENA EGITEKO.

Deialdiaren seigarren eta zazpigarren oinarrietan jasotakoarekin bat (UPV/EHUko gerentearen 2021eko maiatzaren 21eko Erabakia), "SGIKEReko Goi Mailako Teknikaria (Makroportaera - Mesoegitura - Nanoteknologia)" lan poltsa zabaltzeko hautaketa prozesurako epaimahaiak jakinarazten du:

LEHENENGOA.- Hautaketa prozesuaren fase guztiak amaiturik, Epaimahaiak behin betiko balorazioa eman du.

BIGARRENA.- 6.6 oinarriak dio ezen lan-poltsan sartuko diren pertsonen hurrenkera erabakiko da puntuazio totalaren arabera. Bakoitzaren puntuazio totala kalkulatu da honako hauek batuz: merezimenduen puntuazioa, euskarari dagokion puntuazioa eta oposizio faseko probaren puntuazioa. Berdinketa gertatuz gero, irizpide hauen arabera erabakiko da hurrenkera:

1. Oposizio fasean puntuazio handiena lortu duenak izango du lehentasuna.
2. Merezimenduen lehiaketan puntuazio handiena lortu duenak izango du lehentasuna.
3. Merezimenduen lehiaketako atal bakoitzean puntuazio handiena lortu duenak izango du lehentasuna, oinarri hauetan atalok agertzen diren hurrenkeran.

Irizpide hauek aplikatuta ere berdinketa hautsi ezin bada, zozketa egingo da, Langileak Estatuko Administrazioaren Zerbitzura Sartzeko Arautegi Orokorrean esaten den legez. Indarrean deialdia argitaratzen den egunean, dagoena.

HIRUGARRENA.- Zazpigarren oinarriarekin bat etorrita, hautaketa prozesua behin amaiturik, epaimahaiak prozesua gainditu duten lehiakideak ordenatuko ditu, bakoitzak guztira lortutako puntuazioaren arabera, bakoitzak atal bakoitzean zenbat puntu atera dituen ere zerrendan zehaztuz. Gero UPV/EHUko gerenteari emango dio zerrenda, prozesua ebazten duen behin betiko erabakia eman dezan. Epaimahaiaren erabakiaren kontra gorako errekurtsioa aurkez dakioko UPV/EHUko gerenteari, hilabeteko epean, erabakia argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Honi lotu zaio epaimahaiak egindako hurrenkera proposamena (I. eranskina).
Proposamena Lan-eskaintzen atarian ikus daiteke.

Leioan, 2022ko apirilaren 6an

Epaimahaiko idazkaria

José Manuel Nicolau Expósito